

# «Euskal kulturaren datuetan gezur handiak daude»

Josu Landak "Odolbildua" eleberria kaleratu du, hainbat urtetan libururik argitaratu gabe egon ostean. Hori aitzakia gisa hartuta, honetaz eta hartaz hitz egin dugu Herre-ran jaiotako idazlearekin.

Aitziber Iartza

Nola gogoratzen duzu umetako Herrera hura?

Txikitako gauzak, oro har, oso gutxi gogoratzen ditut. Herrera Altzako auzoa da, baina ni Herrera barruko azpiauzo batekoa nintzen; Herrera eta Roteta artekoa, hain zuzen. Nik bizi nuen giroak Herre-rara joaten nintzenean ikusten nuena-rekin zerikusi gutxi zuen. Etorkinez inguratuta bizi nintzen: arrantzale galiziarrek, karabenero extremaduratarrak... Rotetan ibiltzen nintzen, eta han delinkuentzia, prostituzioa eta abar bazen; nahiko giro nahasia zen. Guk etxean euskaraz hitz egiten genuen, baina gure inguruan beste



inork ez zuen egiten. Inguru horretan oso zoriontsu izan nintzen.

Pasaiako portua edo Kontxa, zer bisitatzen zenuten gehiago?

Pasaiako portua. Etxearteko koadrilakoeekin Pasaia-ko portura joan ohi ginen arrantzara eta bainua hartzera. Koipe artean murgitzen ginen, gustura gainera. Kontxara gaztetxoago ginela joaten hasi ginen, Donostiako lagun batzuk edukita-koan.

Zuk ezagutu zenuen hartatik hona aldaketa handiak izan al dira?

Nik, oro har, sentazioa dut ume nintzenean ez zela beharrezkoa herri kontzientzia izatea etxearte batean bizi-tza autonomo bat izateko. Irudipena dut

hori dezente galdu dela, eta bizimodua antolatzen dela ustezko metropoliaren erdiguneari begira. Globalizazioa ez da soilik makroekonomiari eragiten dion fenomeno bat; globalizazioa maila txikiagotan ere nabaritzen da. Galdu egin da gertuagoko gauzetara begiratzeko eta horien inguruan antolatze-ko gaitasuna.

Hala ere, azken aldian Altza herri gisa bereiztearen aldeko jarrera indartzen ari dela dirudi.

Gero eta jende gehiago entzuten dut bere burua altzatar gisa definitzen. Nik horren eragina egungoa baino nabarmenagoa izatea nahi nuke, baina arrazoi antiglobalizatzaile huts batetik. Ez altzatar harrotasun batetik begiratuta, baizik eta antidonostiarismo batetik. Nik, as-



# Teknologia berriekin beste biblia bat idazten ari dira

palditik, gorrotatu izan dut donostiarrismoa. Ez dakit nola azaldu, baina uste dut handiusteko eta besteak gutxiesteko erabiltzen den etiketa bat dela. Donostiarrismoa gorroto dut, ez, noski, donostiarrak eta ezta donostiarristak ere, horietako asko maite baititut. Gainera, donostiarristak ezagutu ditut baita tolosarren edo zamarragarren artean ere. Jende askorentzat donostiarrismoa ez da Donostian bizitzea eta Kontxako baranda zein polita den aldarrikatzea, beste zerbait da eta ez dut lortzen sintetizatzea, baina elementu gorrotagarria du.

**Auditx Akular proiektuaz zein iritzi duzu?**

Egia esan, proiektuaz gutxi dakit. Informazioa nahasia da, eta argitu beharreko gaia dela uste dut. Hala ere, argi dut Auditx Akularreko lurrak Donostiako badiatik gertuago egongo balira, ez litzatekeela horrelako proiekturik planteatuko. Donostiako udaletxetik aski urruti daude lur eremu horiek, San Marcoseko zabortegia aski urruti dagoen bezala.

**Nola ikusten duzu euskal kultura eta euskalgintza?**

Kontsumitzaile edo jasotzaile gisa gero eta gauza gehiago topatzen dut gozatzeko. Ez dakit, ordea, jendeak gero eta gehiago gozaten ote duen. Termometro garrantzitsuena da hori, baina ez dago honi buruzko daturik.

**Literaturara mugatuta, nola ikusten duzu egoera?**

Irakurle gisa oso gustura nago. Gero eta gehiago gozatzeko aukera dago. Baina za-

lantza da hori orokorra ote den. Berriki kaleratutako inkesta baten arabera, euskaldunen %30ek irakurtzen dute zerbait euskaraz. Horrelakoek barregurea eragiten didate, horrek 200.000 lagunek irakurtzen dutela esan nahi baitu. Kaleratzen diren euskarazko produktuak zenbat saltzen diren ikusita, 170.000 lagunek trafiko seinaleren bat irakurriko dute euskaraz, bestela ez baita ulertzen. Datuen eta neurketen inguruan gezur handiak daudela uste dut.

**Militantzia gero eta gutxiago dagoenaren ideia zabaldua dago. Zuk, aldiz, duela 20 urte baino militantzia gehiago dagoela azaldu berri duzu.**

Duela 20 urte militante asko zegoela esan ohi da, eta nire ustez, ez da egia. Garai hartan militantzia ez kobratzea bezala ulertzen zen. Gaur egun ez da soldataren bidez neurtzen, hala balitz zabor kontratua duten gazteak bailirateke militante. Militantzia zeure kabuz egitasmo baten alde eskaintzen duzun indarra da eta ez dut uste hori jaitsi denik. Garai bateko militanteak gehiago agertzen ziren komunikabideetan eta beraz, gehiago zirela zirudien. Gaur egun militanteak baude, baina anonimoagoak dira.

**Teknologia berrien arloan aritzen zara. Euskal kulturak egoki erabiltzen dituela uste al duzu?**

"Teknologia berriak" terminoa eufemismoa da, izendatzen ez dakiguna izendatzeko modua. Kontua da termino horren inguruan izugarriko industria antolatu dela. Eufemismotik bizi den industria: aholkulariak... Ekintzetatik baino hitzetatik bizi den industria da.

Horrekin lotuta dago ea behar bezain ongi erabiltzen diren. Hitz horiek totem bezala erabiltzen dira eta ondorioz, asko hitz egiten da gaiari buruz, baina gero egin egin... Diskurtsoarekin alderatuz gero, oso gutxi egiten da. Diskurtso hori egongo ez balitz, egiten dena ez legoke hain gaizki. Guztiak gara teknologikoki "guay", baina gauza gutxi egiten dugu. Lehen pauso gisa nik diskurtsoa desegingo nuke eta jendeari gauza praktikoei buruz hitz egingo nioke, ez "hau da gure erronka" eta antzeko mezu orokorrak emanaz. Teknologia berrien kontuarekin beste biblia bat idazten ari dira, eta diru gehiegi gastatzen ari gara literatura horretan. Diru hori gauza praktikoetan jorratu beharko litzateke, eta ez horrelako literaturan.

